

{ datorrena } Maite Ubiria

Alferrikako egitasmoekin tematzea ez da «in»

Emmanuel Macronek bost hamarkadaz luza-
tu den gatazkari irtenbidea eman dio. Bretai-
niako Notre-Dame-des-Landes herrian aire-
porturik ez dute eraikiko. Ezin da ziurtzat
eman, ordea, hautu horrekin frantziar presi-
denteak berehalako etekinik lortuko duenik.

Inkestek ez dute betarik uzten *ganant-ganant* formula
plantan eman duela argudiatzeko afera honetan. Gau-
zak horrela, galderak berehala datoz: zergatik eman du
gehiengo zinez eroso duen mandatariak garaian egini-
ko erreferendumeke emaitzari bizkarra emanez NDDL
makroegitasmoa behin betiko lurperatzeko agindua?
Nolatan izan du eskubide sozialen eta lan eskubideen
aurkako oldarraldia martxan eman duen estatuburuak
botere izugarria duen Vinci enpresarekin izenpetutako
“betoizko kontratua” hauste-
ko atrebentzia? Zalantza ho-
riek eta beste anitz mahai
gainean ezar daitezke. Alta,
erantzunak ematea ez da
galdera ikurrak barreiatzea
bezain sinplea.

Argibide bila, 2017an Esta-
tu frantsesean gertatu zen
lurrikara politikoari begira-
da iraunkorra, tarteka sa-
minduraz betea, eskaini
dion egile bati irakurri berri
diodan tribunari helduko

diot. Jarduera politikoen dimentsio kulturalak aztertzen
dituen Gaël Brustierrek *flashback* egin eta iazko ur-go-
raldiak utzitako arrastoari buruzko gogoeta argitaratu
du Slate.fr magazinean (<https://goo.gl/PgwNDn>).

Jean-Marie Colombanik, “Le Monde” egunkariko zu-
zendari ohiak sorturiko argitalpen digitala, gaur-gaur-
koz, Rothschild taldeak kontrolatzen du. Alderdi Sozia-
listaren bilakaera ikusita, ez da oso zaila antzekotasunak
aurkitzea. Idazlea bera Jean Jaures Fundazioren lagun-
tzailea da, hain zuzen «erradikaltasun politikoak» azter-
tzeko sorturiko taldeko kidea. Azalpenak ematen dituen
ikertzaileak, bere burua frantziar sistema politikoaren
ertzean kokatu baino, *establishment*-aren bihotz taupa-

dak ongi entzuten diren eremutik heltzen dio gogoetari.
Podemosen gainbehera bere tesia sendotzeko baliatuz,
Brustierrek argiki adierazten du Estatu frantsesean
2008ko krisiarekin batera zabaldu zen aukera leihoa ix-
tear dela. Ikerlariak ohartarazi duenez, «horrek ez du
esan nahi krisia gaindituta dagoenik, baizik eta horrek
utzitako panorama finkatzeko bidean dagoela». Horrek
azalduko luke, bere ustez, proiektu zentrista baten era-
mailea ez izanik ere, Macronek zentralitate politikoa
hain azkar okupatu izana.

Esanguratsua bada macronismoari horrelako sendo-
tasun labela ematea, nork eta sozialisten ezkeraren
zaindaritzat har daitekeen analista batek. Egilearen te-
siari so eginez gero, alderdien krisiaren gainean botere-
autoritate-estatu «errestaurazio» prozesua abian litzate-

NDDL, AHT edo 2025ko Erakusketa
Unibertsala antolatzeke hautagaitza
bertan behera utziz zama arindu du
Macronek. Herrien borondateari galga
kentzeko erabakimen bera izango al du?

ke. Ikuspuntu ezkor horrekin bat egin gabe ere, agerikoa
da NDDLko aireportuko dosierra kitatzerakoan Macro-
nek termino estrategikoetan jardun duela. Hollanderen
luzabideak zein Sarkozyren presazko apustuak bazter-
tuz, «ondorengoari konpondu gabeko arazoak uzten ez
dizkion» presidentearen izaera eraiki nahi du. NDDLri,
AHTri edo 2025ko Erakusketa Unibertsala antolatzeke
hautagaitzari muzin eginez, hainbat alferrikako egitas-
mo ez direla *in* deliberatu du Macronek. Aldiz, auzi poli-
tiko zaharren kasuan (Korsika, Euskal Herria...) erabaki-
men berarekin inertziak haustera jokatu du edo, bere
aurrekoek egin bezala, herrien borondate demokratikoa
bere agenda erreformistatik *out* utziko du? •